

Udal ordenantza sortzeko proposamena

ARRAIA-MAEZTUKO UDALERRIKO NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK SUSTATU ETA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 133 artikuluan ezartzen du **aurretiko kontsulta** Ordenantzak eta Erregelamenduak tramitzeko.

Hori dela eta, Udal honek aurretiko kontsulta tramitea bideratzen du nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzeko udal Ordenantza sortzeko beharra.

Konpondu nahi diren arazoak: nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategien eraikuntza berrien eta zaharberritzearen arazoa.

Onartzearen beharra eta aukera: nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak sustatu eta garatzea.

Arauaren helburuak: irizpideak eta prozedura egituratzea eta ezartzea dirulaguntzak emateko, eta herritarrek berdintasunean eskuratzeko aukera bermatzea.

Izan litezkeen bestelako aukerak: proposatuko direnak.

Hortaz, herritarren eztabaidarako eta kontsultarako epea zabaldu da. Epea 2018ko apirilaren 19an amaituko da.

Gai horren inguruko galderak bi modutan aurkeztu daitezke: paperean udal bulegoetan edo arraia.secretaria@ayto.araba.eus helbide elektronikoko bidez. Gaian "Ordenantzari buruzko herritarrei kontsulta" adierazi behar da.

Maeztu, 2018ko martxoaren 26a

ALKATEA,

